Activating Circular Services in the Electric and Electronic Sector

Berregokituriko aparatuen erosketa pertzepzioa aztertzeko Living Lab demostratzailea

ABSTRACT

25-11-2022



H-Enea Living Lab

ABSTRACT: Results of Demonstration of end-of-life phase for TV set and Washing machine

H-Eneak Living Lab bat diseinatu du Arrasate Ekocenter-eko instalazioetan C-SERVEES europar proiekturako, non Gaiker, Arcelik, Laughborough University, Rina, Sat, Emmaus, Soltel, Indumetal, Pwo, Greentronics, Erion, Weeeforum, Lexmark, Circularise, ADVA eta particula group enpresek, parte hartu duten.

Egindako prozesua, 2019tik 2022 artean aurrera eramandako erosketa-aukera gisa proposatzen diren produktu birmoldatuen testuingurua ulertzeko azterketa bat izan da. Analisi honek C-SERVEES produktuen (kasu honetan telebistak eta garbigailuak) fabrikatzaile eta birgaitzaileen ikuspegia hartzen du barne. Horretarako, Emauseko salmenta eremuan erakustaldi-espazio bat diseinatu zen eta eskaintzen ziren produktuekin bat etorri zitezkeen erabiltzaile-profilak sortu eta definitu ziren.





Azterketa honetan parte hartu zuten erabiltzaileen profilak 3 azpimotatan banatu ziren; Alde batetik, baldintza sozioekonomiko jakin batzuk betetzen dituzten profiletan sartzen diren eta gutxieneko osagarriekin apartamentuak alokatzen dituzten pertsonak (Alquiler Inmocaixa Arrasate), Etxebideren alokairu sozialeko maizterrak eta ingurumenarekin arduratuta dagoen profila.

Hainbat analisi eta merkatu-ikerketa egin ostean, proiektu honi heltzeko modua Demonstrative Living Lab baten diseinua izango zela ondorioztatu zen, osagai pedagogiko handia eta C-SERVESS proiektuaren inguruko balio-proposamen zehatza delako, kasu honetan, telebistak eta Garbigailuak. Erabiltzaileekin probak egin aurretik, infografia pedagogiko desberdinak diseinatu ziren, ebaluatu beharreko balio-proposamena argi uler zedin. Bestalde, Emaús Arrasaten, gaur egun Ekozentroan altzariak saltzeko erabiltzen den espazioa baliatuz erakustoki bat sortu zen.

Behin aurretiazko lan horiek burututa, guztira 17 erabiltzaile-proba egin ziren birmoldatutako garbigailuaren produktuarekiko interesa neurtzeko eta 17 proba birmoldatutako telebista-produktuarekiko interesa neurtzeko.





Proba horien emaitzek datu desberdinak azaleratu zituzten. Oro har, positiboki baloratu da ingurumenerako birmoldatutako etxetresna elektrikoak erostearen garrantzia. Proposamenak erabiltzaileengan sortu zuen interesari dagokionez, telebista berrituen kasuan, parte hartu zuten pertsona guztiek proposamena interesgarria iruditu zitzaiela pentsatu zuten. Garbigailuen kasuan, pertsonen %12ak erantzun du nahiago lukeela garbigailu berria erostea. Proposatutako prezio-tarteari dagokionez, telebistaren kasuan, %100ak 250€ ordaintzeko prest egongo litzateke eta garbigailuaren kasuan %47a soilik 241€ ordaintzeko prest. Datu bitxi gisa, telebistaren birmoldatzean garbigailuan baino gutxiago fidatu arren, erosteko joera handiagoa da.